Baionan treinez kambiatuak Bordenleko bidean da gure mutikoa. Zer lekhu hitzen artean dabilen burdin bidea, zer lur meheak, dena palbe eta "piñada"!! Noiztenka ageri da itsasoa edo haren orroa.

«Behar han izanen haiz, Antton, hira untzian, itsasoaren eskuko, haren jostagaitu!»

«Emeki emeki, ihurra jin da.»

Amak sakelan ezari chingar eta moleta

milikatuak lokhastu nahi duke Anttonek, bainan ez da aise treinaren inkarros/alki guzien gatik eta sakhet-bean duen gizon lodi, tripa haundi baten zurrunga izgarriaren gatik. Eta dago, bi begiak hetsirik, erdia lo, gogoran dabiltzata etun mila gogosta.

Egunarekin batean heltzen da treina Bordenlerat, Eguerdi ondochean zuen Anttonek untzian partu behar, bainan garatik ahera orduko badoa bere untziaren ikhusterat, begi, statzerat eta lekhuaren hartzerat. Hango harat hunitak egonik, johan da behar duela itzuli bat egun bi urtez gogatu duen soldado Kazernako alderat.

Bidean hatzemaiten ditu zombit lagun.

Nun debilan errarik pagatzen diogkate zombit drago. Har-rostkoak izanik ere, ez diru jende gaicktoak Bordenles horiek.

Antton ez da edatea, bainan ez da egun guzietz Ameriketarat joatea eta zer plazerra soldado lagun baten ikhustea.

Koloreak gorri, begiak dir dir, frango alegere da Antton untzirat iragaiten delarik, Krakada bat egonik, gogotik lokhastzen baita bere Kainolan ohergat duen sarearen barnean.

Oraino egun argi da Antton iratzartzen delarik. Untzia jadanik lehorretik urrun. Haldamaldaka kamporat iraganik, ehoadura bat bezala heldu zaio Anttoni, inguru guzian urik bereiz ez ikhustearrekin. Trema bati lothua dago gogotik, ez baita fidetzeko untzia-
ren jauzerei; hain hurbil badira bi gizon, begi ikhuz behatzen baitute itsasoari eta betebetan, dudarik gabe alegeratzeke, kantu musikari hestean dira.

"Zer!!! Cho!!"

Anttonetik, lanjerria akantzerik, jauzi bat egin du bi gizonen buruz.

Eskuaraz dira kantuz, bi eskualdun!! Zer loial!!

Laster egiten dituzte ezagutzak eta adichkidantzak. Bi Mehaider dira, beren dotearien egiteat Ameriketarat johan direnak.

Hiru Eskualdunek aise iragan zuten, elgarekin Frantziatch Ameriketarako bidia.

Hamabi egunen buruko Ameriketako lurrean pousatzen du zangoa Anttonetik eta lagunak beren alde joaterat utzirik, Antton jarraititzen da Etchemendi Kambothorak eman bideari.


Urriaren hogoi aratsean, hemeretzi ehun'ta hogoi'ta hamazazpian, egundaino orhoitu

Behar zuen sartu zela bere Amerikano nagusi berriaren etxean. Nagusia zeri martxanta eta ez nor nahi, itsaso basterretik Chicago hiriraino ezagutua zena. Antton igorri zuen biharamunean berean zelhai batzer batetarat, nur baitziren Charaganiko obrak hogoi mila urderen harteko. Hango aintzindariekin hitzartu zen Antton lanaz eta soldatuz.

Hiru, ikhabetheren buruko, eskualdun batzuek gidaturik athera zen, hirichka batetarat joaterako eta han bere gain hasi zen urde hartzen eta haragi saltzen. Berak ahal eta talendu gaitza baitzuen, laster hasi zen azkartzen. Hasteko behar zuen posu lagun batzuek pusatu zitoten. Hamar urdekin hasi zen lanean eta urthe baten buruko ehun urderen jabe zen, pos frango eginik eta zorak pagaturik, eskualde bat baino gehiagotarat entseatu baitzen eta Ameriketara ez baita nahikeria duenarentzat irabaz-bidea eskas.

Hemeretzi ehun'ta hogoi'ta hemezortzigareneko urria. Jadanik muntatua du numbeithan etche berriaren. Dako behar duen dirua, urthea baitzik ez duelaik Ameriketara dela. Bainan oraino egon nahi du zombest urthe, bere etchea azkar ezartzeko eta bere

haurduri dote baten egiteko. Hatsuoko haitaren
ondoko etchaldearen iduri nahi zuen egari Etchebasteren,
darek eman zezaten Antton Amerikanoaren egotzag
erari ahala aspantu.



Gorputzez urrun; bikotzez hurbil

Anttonek, bere egimbride guzien artean,
ez zituen egun bat ere ahansten bere atchekoak. Gorputh
zeg urrun baxiren, bikotzez hurbil ziren bethi eta luna
heien solasak.

Ameriketan jani orduko, Anttonek gatzigatzen
zuen bere atchekoeri

« Ene aita, ama eta haurride maiteak

ene egungo lanak akhabatuak
ene atcholan nago zuet gozuan. Zueri berri hauk
gatzigatzean, iduitzen zaut ikhusten zaituztedata oro
eni beha. Pentsatzen dut bethi ontsa zirezela, Airemen-
din ez dela deus berriagotik eta Pierre eta Manezek
gogotik laguntzen dutela aita.

Ama maitea, ez zaguak arangurarik uthen
nitas. Nahi bezala niz. Nagui onak ditut eta iraiteko
lana dut. Ez dut hilaberthean mila libera baxiz
irebaxten, bainan emeki emeki, ezagutzek egitearekin,
irebax. bide hobee bat hatzemanen dutela pentsatzen
dut. Aitak eman lau mila liberetarik, mila libera

gelditu zitzautean. Estuakaldin bat badut enekin, Dona-
phaleuko aldekoa. Hau ez da geroaz khechu, etche-
koekin samurtuak fina da eta ez du gibelarik itzultzerik
aipatzen. Jan doia irabazteaz kontent da.

Muga gazte horiekin ontsa ari direa
uztarian? Jaun erretorari erazue milaka goraintzi
eta othoitz egin dezan erretzat. Ez dut meze igande
guzuez entzuten ahal, bainan Jainkoak ikusten du eta
lagun tzar batzuen tufa eta ethe tzar batzuen gatik
ere egimbideak bethetzen ditut.

Igorritzue ardura Airemendiko berriak
cheheki. Ez duzue sinkesten ahal gure zoria. Estuak
Herriko berriak jakiten ditugularik.

Uztan zituztet, etcheko maiteak, oro fintik
besarkatuz

Antton.

Nahiz ez zuen igorritzuea gogorki. E
maite Anttonet ardura eta cheheki igortzen zituen
bere berriak, bere etchekoen sustengatzeko. Ez zuen
bada Merichan ere ahanzen eta hunen ganik ere
ardura zituen erretpostuak, Etcheko berriak bakhanago
ikusten zituen, amak igorritik. Bainan aldi guzuez

zoru etchekeki!

Hemeretzi etun'ta hogoi'ta hemeretziganenaren
hastean berriak usnago abiatu ziren etchekek. Frantziar
Jadanik gauzak makhuu zoztzen, Aleman tzarra, berri
ere, azkartuak, tzarkerian hasia, gerla fitu nahiz zabi-
lan eta Frantziar gizon guti gure dretxoan azkar
atehikitzen.

Eta Ekhaina hastean, Anttonen ukhan
zuen meze hau, amak egina, aitarien phurtez.

Ene Antton semea

Ez duk haratik ez hunatik, etcherat fin
behar duk. Gauzak gero eta nahasiago daatzik. Ene
hentsatzeko moldean, ichtant bat goiti behiti, gerla
segurra duk. Aleman tzar hori biziki azkar duk. Cherlo.
vakia eta denak bildu nahi ditik, nekoren beldurik
gabe. Eta horren urgulu tzararekin ez duk urrun
Joanen Frantzia ere zirikatu gabe. Jaun erretorak
ere erren zantuk igandean othoitz egiteko, gerla ez
dela mirakuluz laizik uruntzen ahal.

Berez, haugi, Antton. Sekutan gerla
fiten bada ez duk errena cuiseago haratuko dukala
itsasoa. Erekarteko nagusi zene ere ondareko gerla

gerla hartean itzasoan itxo ziren, haren urtzia
ur-petxo batek zikhatuak. Eta ez bakariz 3 jiten, desertor
hiz. Nik ondaratzea egina diat eta ez diak ene famikian
desertorrik ikhosi nahi.

Hangi beraz, zombait demboraz gocha
gaiten elgarrekin, makhurik jiten bada ere. Piarik ere
laster soldado Joan behar dik eta gertarik ez bada
ere badiagak hize behara kampo lanetan.

Hize cuta eta arua fidel.

Ontasun gaitzaren muntatzeko bidean zen
Anton, bainen aitaren galdea ukhan orduko, berehala
Frentzierat itzultzeko manerak hartu zituen. Egin zuen behar
bada noizpeit Maniz edo Piarre igortzen atalko zituela
Ameriketarat eta ehun mila liberekin aski zuela etche
ret jitea, bere negozioa ordain baten eskuetan utzirik,
urthe guziaz hoimbertze arranda ukhateko tratuerekin
Zuhurki eginak zituen bere gogoetak, bainen gizonaren
hazia Jacukoa du portarazten.

Nahi bezala, ordain bat hartzerarik,
haren tratua egonik, urthean hogoitze bostz mila
libere arranda atxekatuko zituela, Frantzierat fin zen.
Aitak erren bezala, baxterek birziki.

Khechu harteman zituen. Haren jitearen bozkalentsia, gerta
Pohesek ikhundu zuten. Jadanik soldadogoa egina zutesen
beriz galdatzen hasiak ziren. Bainen Antonetik bazuen
bethi nahikeria Jainkoa agertuko zela aski urukalmen-
dutsu eta gizonak aski zentzudun, guela doi doia
hogyoi urthe hila zen zu zigaria beriz ez plizteta

Antton sordun Airemendin.

Frantziaren gainean hedoi beltzenak bilduak
baziren, Etehebozterrean egunak edertuak ziren. Martxoan
jadanik, etche berriaren gainean zureziaren ezartzen hasiak
ziren eta beharrik aphiurleko teilak emanak zituzten,
ziren aphiur ondara dena dembora teharretan joan zen.

Eta orai, ugata. Etehe berriko mehachian
nuntzetan ari dira Kayet Lekueder eta Maney Mehari,
Airemendiko bi mehachian hoberenak. Anttonetik ikhusten
du zer lana ibili duten aitak eta anacek, hoimbatze
zui eta taule gien ochanean botatzen berean, bainan
ez du bere phartetik ere arranguririk, autaren manuz joana
botatzen Ameriketarat eta ez bachi han demborarik galdu
guti hartzemanen bachi Anttonetik begain laster horrek
bezembat ontasun bildu duenik.

Demek badakite Airemendin, Eteheboz-
terreko Amerikanoa posez ithora ethori dela.

Bi urthe hautan, ez da nehor alfer
egon eta ororen peria, orai etchebizkanean da,
usua den bezala, harginek etchearen estaltzez ahabatu
dutearik, teilatuta izkiman ezari duten lore eta berdura,
jadanik hasiak dira, amaren nahitarat,

botatetik etche berriat puntan karreatzan, gizonak
ari dira tauleduak garbi eta garbi.

Agorriaren hamare, phesta edena Etehe.
botzterrean. Goizetik etche berriari arizen diren langile
guziak hor dira konduen egiten. Hamaka orenetan,
Jaun erretora ari da etche berriaren benedikatzen.

Eguerditan, kondua at egunak dira.
Anttonetik ematen du bakhotehari bere, orotarat
lauetan hogoi'ta botz mila libera.

Jaun erretori ere egiten dio bere
ikhustatea eta bertzalde mila libera elizarentzat, eta
oro choratuak daude posa zoin aise dabilin.

Aita Erromun nigarra bequetan atzo pla.
zerrarekin eta ama ere, zathi bat eskuan, gorri
gorria dabilu batekin eta bertzearekin elheketa,
pukaldea bere bi nechken eskuko utzirik, heiet
ere, phestak aratuak, ari baitira jateko guziri
guzirik chichtake, hau jatta eta hura jatta,
dotzena erdi bat gathu jebokor marzekan
eta gormant busten chut ondokik dituztela.
Bada haro eta orai, egiteko
guziak egirik, ezkaratz berriari jartzen direnrik
barkaltzeko. Jaun erretora bere hor da makina-

ren erdian eta hi! he! ez du oduri batere samur
dela egun egun behar duen baghariaz eta ere etche
berri huntan den zorroz

Antton Khambiatu da Ameriketatik

Jinuz geroz. Lehen zuen herabetasune utzia du eta
orai bi estuak pakelan, badu gizentasun berezi bat,
bere laguneri gustatzen zaiztena eta Anttonen ezin
badute bethi aditzeko.

Igantetan beruz pitotan hasia da,
bainan lehen egiten ez zuena, orai bethi jokatu
nahiz dabite.

Merkitatuetan ere abiatu da. Jen orduko,
Epeletan erosi ditu cutak, duela bi urte, untezi
berarentzat saldu zituen bi behien ordainak, Kasik
doblea pagaturik: Bizia goiti ari da gerta poles
horiekin. Beharrik Anttoneri seguratu da Ameriketan
bethi chuchen. Jinen zaien arrenda

Etche berrian partu orduko, Antto-
nek gango bat du buruan, eta horra zer den
Marichani gaztigatzen duen bezala.

" Ene Marichan maitea

gure etche berria prest da, eta gure eskont-
zako tenorea jina. Undarretko aldean adarrazten zinau-
tan nahiago zinueta hirian bizi, bainan prestatzen
dut gogoetak behar den bezala egiten dituzula, eta
elgarri eman ginuen hitza atchikiko. Zuk nahiko
duzunean, ni libro izanen niz. Lehen bai lehen hobe.
Gure ama chahartzen ari da akhidurarekin, ni hogoita
zazpigarren urtean eta gure etche berria etchekan
dere berriaren berrian da. Nahi baduzu jinen nauzu
ikhusterat chehekiago mintzatzeko ez bozira zuhar
hurat jiten ahal.

Bethi zuri fidel

Antton.

Hiru egunen buruko errepostua ukaiten du.

Ene Antton maitea

Nekundik ahal baduzu, zato ortzegunean
Baionarat. Ortzegun goizean etcheko-ak Kamposi ditut.
Gaurat jinen niz biderat eta hemen mintzatzeko
gore cheheki. Uzten zitat. Lanuz bethea niz
Zure beha

Marichan

Marichan hiritarra

X
Anttonetik ez zuen dudarik,
egin zaien errepostuaren arabera, Marichanetik onartzaren
zuela haren galdea eta gogotik hartu zuen ortzegu-
nearn Baionaratetako tresna.

Bertzeta zagon egia.

Baionatiko garan sartzean elgami agurrak
egerik, hau eta hura mintzatu ziren bidean, Maricha-
nen lekturaketokoz.

"Unkatua niz, zion Marichanetik, bada "zineman"
nintzan. "Filma poliziera" zen eta hura gogoan lotzatu-
rik zer nahi amentsu zozoz eta lo nahasia egin
ditut eta batere ez pautatu.

— Ori, guk lo ezia egin dugun. Egun guzira
porrostan aritzenik, hametaka orenak gortuen aurraldur-
nik eta kabalak moldaturik oherat orduko

— Beharrik fin zera egun. Nagusi ~~etxeko~~
etxetik andereak joanak ditut egun guziko alichikide
batzuen. etxeratik eta egina dautzuz. bazkeri ontto bat.
Lehenik "langouste," gero "tomate farci," "écrivisse
au chou-fleur" eta gainerateko.

— Gaixoa! Ez zuen balio deusen egitea,

banituen etxeratik bi etche-ogi zerra moleta puska
bat eta chingar zafra batekin. Gasna puska bat ere ba
eta etxerakoa ontsa betherik.

— Ok! gaixoa! Badugu hirian horiet baina
hoberik. Etche-ogia ahantzia dut aspeldi. Hemen
"flata" fresko freskoak baizik ez ditugu jaten. Gure
Kampañetako gasna ere afusa da, hemengo "Roquefort"
"Vache-qui-rit" "Camembert" eta "Hollande"n aldean
Gordezkitzu g zure jatekoak berriaz etxeratik joateko.

Gaizo Antton, Kasik ahalgetua bezala
zen, bere federik hobereenen mokanes gorrien
bazkeria etxeratik. Eta bazkeritan hasi zen, aste
zuela eta zer nahi.

Lehenik ikhusi zuen lenak ematen zituela
aberats haundien gradoan jateak. Eskuez ez zela
jatekoik huntitzen Marichanetik erarik, nehorat ez
zitaken, erhiekin jaten usatua, furtcheta tresna harekin
apaita. Eta ez zuten lan errecha Marichanetik etxer-
tik zuten jateko tresnak, "langouste" "écrivisse"
eta barrakeriak, dena hezur makela, ez baitzuzaten
aldien lethagin zelhotara bat baino gehiago haragi
hartzeman furtcheta izkharrekin. Beharrik Marichan
chutitzen baitzen artean eta behetzen ez zuelarik

Anttonek laster tiratzen baitzituen zombait ausiki,
etxean bezala, hezur bat eskuan hartuik.

« Ez zion oraino kontra egin nahi, bainan
hitzgaiten zion, etchebuztanean ez zuela nehorik nola
jan manatuko.

« Eta zer bazkari tricketa! Dena botiga.

Salda tikitik bat, azitarren erdikata; ogia botkatu nahi
eta ogi ehirungila idor bat baizik ez; gero "horodouille"
eta nik dakita zombait izen, ba, bainan, izenek ez
baitute famatua izanik ere, Anttonek duen bezalako
taipa bat asetzen, Antton oraino gose zen bazkaria
fini zela Marichanek emaitzarekin; galdeginez:

« Jan duzue asti?

— Bai, bai, garchoa! Segur, holako bazkariak zerbat
batio du!! »

bere baithan egiten zuela" ez nagok
beaz hancapatuik »

Bazkal'ondoan, Marichanen nahitarat,
Kadera luze baitzuetan jarru ziren "diseztion"aren
egiteko, ez baitzuen lanferrik Anttonek segurik barne
bethedurarik uthan zegan.

Lau orenak irian, Antton, goseak
arauldua, Marichanek egin zion behar zutela hirian

promenatzerat joan, Anttonek galdegin zion hezuz zuen
lehenik chotko bat utanen bere behar ordue
egiteko. Marichan ohartu gabe jarraitkaragi zuen bere
mokanes haundia eta Marichanek "W.C." izendatzen
zirela eta nola kuritzen ziren erakutsi'ta, partu
zedarik, gogotik lotxu zen bere ogi eta motetari...

Atsegin hartu zuen barnea azkarago
ezagutu zuelarik eta gogotik joan zen kariketarat
Marichanekin. Athera aintzinean, putaldeko leihotik
egin zuen behako bat. Paresan, buruz buru, zombait
urhatsetan, karikaren bertzeldean, leiko batetarik
emazte bat beha eta begiek ikusten ahal zuten
bezain urrun, teitatu eta khebiderik baizik ez
ageri

« Ez dut bada hemen ere hiri's kampana bai.
No edenago » zuen bere buruarekin egin. eta athera
ziren.

Zombait urhats egin orduko, Marichan
gelditu zen andere gibet eta aintzin alde lodi bate.
Kin polasean, dena tindu, erhats eta urain, chapel
bat baitzuen buru puntan Jainkoaren mirakuluz
baizik erortzen ez zena.

« Madame, je Vous presente mon futur

— Treis heureuse.....! andereak esku mehar, azkazal gorritu bat eskaintzen zuela Antonni eta, hurre bere aytapar haundietan kruakaka tinkaturik, jaugi bat egiten zuela. >>

« Itxusi da eskuak sakelara erabiltzea, zion Marichanek, anderea urrundu ondutxo »>

Anton nardatzen hasia zen goiti behiti honietaz guzietaz.

« Nahi duzuna egozu, Marichan, nik ez dut pekulan pintxetiko hirian hobeki dela ga bezalako-a.

— Baina, Anton, egun pasatu egunetik ez duzu jufatzen ahal hiriko bizia zer den. Gure Kampana zokhoetan behti chinkaurria bezala ari bekar da lanean argi tirintatik gaurdi hurbildu arte eta zerbeit plazer nahi bada pakelara posit ez.

Hemen aldeiz jonnala behti: chuchen heldu. Ori, zu, hemen bazine lantegi batean, berro goi oren lan zinuagke bakharik egiteto astean. Igand guziak eta "congí hay" ak osoki libro Kabala moldatze eta gainerategorik gabe.

Kampanetan, jendeak ez daki norat joan ez zer egon alfer dagolarik. Hemen beakira "zinema" "theatre" "Kasino" eta nahi bezembat josta lekhu

Airemenden behti enhoatua egoiten nintzan igan detan, zozora bezala, bezperak entzunik ez jakin norat joan. Hemen behti "zinema"n niz..... Aki bezi nahi Anton zer diferentzia den.....


— ... Ni behti neurean nago. Baditake hirian ez den zozion osorik baizik, baina ez dut nik ~~per~~ lekua ukatuko. Nahi dudanaren egiterat, nahi du dan bezala ibiltzerat eta faterat libro, nahi dut ene Kabala eta alhorren erdian bizitzea pegitu,

Ikhusiko ^{duzu} zu ere hiriaz aseko zirela eta Etchebakterrean jarriko. Gogoeta zaitte ontza, enekin nahi baduzu bigi.

— Ez zaitela beha egon, badakit ez dudala pekulan hiria hastiatuko.....

— Ez "baduzu gure" Kampana zokhoetarat" jin nahi, zure egitokoa, baina orhoit zaitte lasto metaren itzalean eman hitzag; ~~haren~~ aharagteko bihotzif estki baduzu, ni baino hobetik harrazu >>

Honek izan ziren Antonen azken hitzak Marichani eta zainak airean itzuli zen Airemendiet.



Anttonen nahigabeak.

Gazte Anttonek bazuen oraino bertze jasaitetorik !!

"Egun batez utxan zuen mezu hau,
"Ene nagusi maitea"

eritasuna jin da zure zeri aldearen gaine-
rat. Ehunka ai zangru hiltzen. Ororen ustez, zortzi
egun goiti behiti ez da bitirik geldituko. Gisa hor-
tan, gure kontratua barneatzen da ez bada alimale-
rik gelditzen. Zure zerriteguez zer egin behar dugu?
Saldu? bada erostun, ala barneatu begiratzeko?

Zure errepostuzren beka

han utzia zuen ordainak igorria.

Antton egun bat egon zen lotsatua eta bere
ordainarendako herria. Zendako ez zituen bada
paltzen, gizon tresna harek, gelditzen ziren urde
guziak garbitzerat utzi gabe! Igual othe zion
hoimbertze eta hoimbertze urden garbitzerat utzea?

"Eta bere baitan, zerbeitet erraiten zion

"Antton, abatzi daukate hiru trofa! Ez
dut gauza horietan Amerikanoen Kontzientzia Kilita.

Ez duk eritasuna partu hire urdetan, bainan segur-
nago Chicago-ko urde hiltzaleen kanibeta."

"Eta bere khechuan, ez zakiem zer
pentsa ez zer egin.

Ororen ahanztetako, dolu baitzuen
Marichani, Baionan, deshegitzean erran zituen elke
borthitzez, egin zuen beher ziola lausenguzko
hitz bat igorri, bere nahigabearen khondatzeko
estakuruan.

"Ene Marichan maitea

zure ganat heldu niz ene niganen
chukhatzerat. Kasik debaldetan da orai ene Ameri-
ketako itzulia. Ene ontasuner kasu egitako utzia nuen
ordainak gaztigatu daut ene Kabala guziak gaitzak
joan dituela eta urthean hogofa bortz mila
libera ekhari behar zautan kontratua trenkatua dela

Beharik bederen etche berri chukik
dugu, bainan hoin ederki egari behar gintuen
aranda eskas, lehengo beharra beharko dugu
berri ere ezagutu.

Sinhesten dut hiru zinez maite dugu.
1. Hiriko langile batek ez du Kabala edo
uztetan estualde beharrik. Edozoin demborarekin

Jornala heldu zaito.

Halere, horien guziren gatik, nahiago dut oraino ere ene brizi-modua segitu. Izan niz Baionan eta Bordelen soldado, baina munduko hiri haundienek ere ez dautate, ez Ameriketako ez gaineratutako Airemendi aiantzeragi eta etchebaitzen. Nearu nizano ez niz batere jeltos aberats eta aise brizi ikhusi ditudanez.

Aitari hitzemanan diot haren segida atchikiko dudata eta etchea begiratu.

Pentsatzen dut zu ere enkoatuko zirela hirian eta aske horko arabotsaz.

Berrian oro eder dira, zahartzearekin arakasta galtzen.

Marichan gaichoa, ez dut beldurrik lasto metaren paketsan eman hitza atchikiko duzula sobera luzatu gabe

Bethi zuri fidel
Anton.

Lerro horiek ukaitan, iriz hasi zen Marichan ergeta. Ez zen segurki deusetan truk beriz Kampānarat itzultzekotan. Hain maite zituen

"zinema" eta lekku galgarretan ibiliaren bortekaz, ait' amek amana zioten fedea hozten hasia zen haren bihotzean.

Nekekatcha ederra baitzen, bazuen bandil eta janfuterria sobera ondotik eta Antones gero eta bakhanago zen orhoitzen.

Gero eta gehiago aments egiten zuen hirian ezkontzea, langile zombietekin... eta saltze-ko denak eder behar baitu, egin akalak egiten zituena ezin anderetuz, ezpainen kolore, ilen plagu, zuen luzetasunetan frango jakintsun baitzen

Eta ere bazituen erosoak zapeta aztal luche luche batzu, heien gainean ibiltzen baitzen haur chutik joan berria bezain nekez, ezin aski chut egonez, eta besoak ezin aski kontra atchikiz, dremendeneko ozka edo harrikkolan zangoa birkutu eta pudura hausteko birrikuan.

Eta chapela ?!

Bal. bal. Chapela ere bazuen Marichanek beste buruetako, chapel gori tiki bat, bere ite haro metaren erdian ~~nu~~ numbeit tokatzen zuena, midaila gaicho baten aintzinean hirur edo lau entseguen medioz, ez baita iste duzuen bezain

68

cuse, ilek chapela eta chapelak ileko pleguak ez
gordetzeko gisan, oraino nekkatcha chapeladun baten
buru gainaren plegatzea!!

'Eta mintzairia!!!'

Marichanek ez zuen gehiago erdareg baizik
mintzatu nahi. Urgulu bat zitzaion erraita oroi eskura
ahantzia edo ahantzien ari zuela. Alta bade ez daut-
zuet hitz eman nahi erdaran trebenetarik zela.....

Haren zangar lodiak haren zapeta ergeten gainean,
ala haren aho mihiak "frantchimentian" berdintsu
trebe.

Horiek hola, gaineretekoekin, pentsatzen
duzue Marichan ez zela gehiago laborantchez agrados
gidari tzer guzien gatik ez zuen bada oraino Anttoni
eman hitza ahantzien ahal eta bazuen hortez bultata
arrangura eta grida frango.

Huna zer chardetsi zuen Anttoni.

" Mon chair Antton

Je puis etai trai contente de ta joli
lettre. De me par je rien t'envoyé quelques
mos. J'é eus beaucoup de la peine quant j'é
put que tout les cochon des Amériques, il son

69

mort. Mes ne t'en fais pas pour en tu envoi
que tu aime plus la campagne et que je
finirai de ferre mes pansés et que moi osi
alors j'émerai plus la campagne. Je ne veul
pas te manjer le mot que je tai doné, mé
je pense que toi osi tu fera tes pansé et
que si tu veu peulemen essayer pour quelque
jour coment tu vivrat dans la ville, tu te
goutera toi osi de la ville et que tu aimera
plumieux la ville que la campagne.

Je fini ses lyre en t'envoiant
un baizet.

Mari Jeanne.

Antton ehotu zen lerro horiek ahal
bezala izkiratuak ahal bezala konprenitu zituelarik
soldadogoen itasi frantses hukkari ester. 'Eta
zagon nun zen haren egimbidea. Marichan ikhas.
ten zuen gero eta gehiago hiriko aireak enganatua
eta bertzalde fremu gisa aterri hitza emana et-
chee segitako zuela eta por lekua hoin maite.

Bi amodio eta bi hitzen artean zen
haren biritotza heresturan.

Bainan herstura hortarik atxera behar
 zuen bestze herstura batetik. Alemanak, beriz ere
 azkarturik eta gain gaineretik, muntaturik, pegitzen zituen
 bere tzarkeriak eskuin eta ezker, oro ikharan
 ezanirik bere inder izigarriaren aintzinean. Eta Uztai-
 laren ondarrerat, Frantzia, bethi leialtasunaren alde,
 jazarri zen buruegoaren kontra

Gerla. Marichanen mezuak.

Buruilaren lekera,
 Airemenditko etche gehienetan portxoetan
 ari dira.

Arats-aldeko bi orenetan, bi fandarma
 heldu dira merisat.

Betbetan ezkela ari da saminko, uda
 minean galerna mehatxu bat delarik bezala. Eta orai
 ere galerna heldu dela gaitu abisatzen, bainan
 Frantzia guzja eta frantses guzzen gainerat eronko
 den galerna izigierena: gerla.

Herriko muthila badoa alde guzietarat
 paper hedatzerat, paper honiek gizon guziak beriz
 soldado galdegiten dituztela esplikaturik eta fandarmek
 enan dutela ez dela oraitoan gerlatik estapatzerik
~~estapatzerik~~ pegurtaturik.

Juizik sartu dira, nigarrak abiatu.
 Bihamunean, igandea, Jendea ichil eta kartsu
 dago elizan. Jaun erretorak enan du meza nagusian
 oihu bat egitiko zeruko dohatsu guzjeri Frantziatik
 urrun dituzten odol ichurtze eta desmasiak.

Bezperetan, mintzoan dardara batekin, itxasteren du bere heriotzari berei latzgarria: Frantzia gerlan hasi dela Alemanarekin.

Frantziako ama, nigar egiten duzu, orhoi-tuz, fadanik soldado duzun semea hilka hasi dela, Alemaniako mugan eta behar bada han numbeiz degola fadanik orozaz azken hatsa ezin emanaz, orhoi-tuz zombait egun goiti behiti surat joan behar duen zure penhar edo haunetaz.

Nigar egiten duzu, sobera irri egin baituzu

Irri egin duzu zure haurren altchatzeaz, Gero eta gutiago ziren Frantziar egiazko amak. Utzi dituzu zure haurrek sobera bere gisa, zinakietarik mundua zoin galgarri zen egungo egunean. Utzi dituzu zure haurrek nagusitzerat. Utzi dituzu zure haurrek nun nahi "plazatzerat" eta "plazatuak" utzi dituzu bere gisa, irabazten zuten ber, herien urkato malkhuren jakiteaz eta chukentzeaz ahotatu gabe. Era-kutoi duzu zure haurrei biziazaren irabazten eta ez zeruzen irabazten.

Beriz eraiteko irri egin duzu zure egimbideaz, irriak nigara ekhartzen daitzu

Anttonek badaki ontse mundua

notukatua den. eta ez da segurki haritzen Jainkoa pamur izan dadin.

Buruilaren lanean badoa, galdegina zkhion bezala Pauerat. eta handik bi hitz etchehoeri, bertze lorja Marichani.

Barteriak hits dira denetan. Ez da soldadosten ere kurajerik batera. Erraiten dute ondarekoan soldadoa gogotik zozta surat. Orako gizonak oro lotzatuak eta gehienak nigaraz daude.

Zer Frantziaren planta!!

Buruilaren hamarrean Antton joan zen Pauetik surat, Alzazeko pharterat. Lehen egunetako ukhaldiak ezitucheak ziren eta ez zen har-rabots haundirik. Eta beriz ere etchehoeri eta Marichani gartigatu zuen ez zezaten arranguririk ukhen lanferetik urru zela.

Egun batez, Marichanen berriak!!

"Chair Monsieur Antoine merci beaucoup pour vos lettres. Moi je suis très bien. Je pense que pour vous ça est pareil. Ici on pense beaucoup au soldat et on est sûr que vous allez gagner la guerre.

On di que vous ête beaucoup plus fort que les Allemands et j'espère que ça sera fini avant l'hiver.

Je vous lesse, monsieur Antoine, en vous expédiant mes meilleures salutations.
Marie Jeanne.

Antonetik arazoarekin hotza eta idorra kausatu zuen mezu hori.

"Monsieur Antoine" hori eta orai "vous" lehen bethi "tu" hain politiki erraiten eta, marka tcharak!!!

Jadanik beldurtua zen lehembiziko aldian errepoturik ez ukhatearekin

Huna zer gaztigatu zuen orduan berean Marichani

Ene Marichan maitea iduritzen zaut zure letra errezebitzean galtzerat doala zure ta ene amodioa. Ez dut nahi gehiago zure bihotza estekatu. Bortchaka ez du balio. Nahi baduzu, libre zira eni eman zinautan hitzetik. Ni baino hobearokik begistatu

duzu menturaz, zozgi harekin. Urrikari zinen Kampañan, uros izan zaitela hitian. Ene bihotzak ez zaitu ahantziko.

"J'thuri ona ttipi ditake, ez da sekulan agortzen, bihotzak ez du hartu'ta amodioarik ukhatzen." dio kantuar

Beraz zure berrien beha nago; Mintza zaitte garbiki; berdin zure harat hunkatak fentsatzen ditut puchka bat goiti-behiki.

Ni bethi fidel

Anton

Huna zombait egunen buruko fin zen errepotua

"Monsieur
je reçu votre lettre. Vous avais bien pansé. Voyant que jamais vous ne vouliez vous metre dans la vite, j'ai comensé aller avec un otre. Come vous m'avai di, je ne garde rien dans le secret, je me mari le 5 Desembre. Mon mari il est très bien. Il a beau coup d'école et il lit beaucoup de journal.

46

Il est conducteur de 2^{ème} classe dans les
Pompes Funébres.

Je vous di donc adieu et sans
me facher, je veux que vous venez me voir
quelquefois. Nous habitons un très joli endroit.
Quand nous seron marié, je m'apêleréz.

M^{me} Marie-Jeanne Maysonave
no 3 Rue des Contéhen
Bayonne.

Etta Anttonet trenkatu zuen leño hauiekin.

« Andere • Maichen

Biba zu !! One baia ukhan baino lehen
jana zinuén emana zinuautan hitza. Hitz emanaren
begiratzea ere ez lorde da heritar! Trufatu zira
nitaz eta pentsatzen dut ere inu gochoki egin duzu-
la zure penhar gei berriaren laudorioak ani
eginez.

Biba zu !! andere Maichen! Jantkoa lekhuo
dago ene phartekin ^{ez zaitudala} ukhatu. Etchebazterrean brakt
bizitzeko elgari zin egin ginuen, beha egon niz

ez zera jin.

47

Kontent zira ni baino hobea go bat bildu-
rik. Ni ere atlegera niz, zu ganik libratu bainiz,
Behar bada sendiko duzu egun batez urritia-
ren uztarra. Zure falta izanen baita, ez dut kor-
taz penarik..

Arnegatu dituzu zure gazte demborako
usua, sinheste guziak. Ez niz estonatzén utzi badi-
tuzu ere gaztean eman hitz eta amodioak.

Adio Maichen! Jantkoa daitzula
mundu huntan bizi uros bat eta bertzean, jija-
merdu zuzen baten grazia

Antton



Battista eta Kattalin.

Handik laster, Marichanek, heritua hitz
hauk igortzen zituen

Monsieur

Je suis étonné comment vous êtes
en colère. Il nia pas raison pour cela. Je vous
ai dit beaucoup de foi que je ne pouvez pas
vivre dans la campagne et vous m'avait
toujours dit que vous ne voulez pas venir dans
la ville il était pas possible que nous nous
marions. Se n'est pas de raison de dire que
j'ai manqué le mot j'ai fait comça parce que
je ne pouvez pas otiemen. Ne soyez pas fâché
contre moi

Monsieur

Deben chikkina! Horra zer errepostu
egin dion Anttonen bere baitan, behen bai behen
argel hura ahanztako chedea hartzen duela.

Egun hautan, Alemanak khechu
dabilta eta Antton, bere zilhoan atzana, trichterik

da etchekoctaz orhoitzen.

Zer balio du gizonaren bizia, lobi
zilho batean, burdin puska baten ganik herioaren
beha egoteko? Zer balio zuen hoinbertze izendi
ichurtzea Ameriketara gairi, denak utzirik, gizon
erho batzuen urdularentzat odot guzia ichurtzeko?
Zer balio zuen hoin gogotik orai arte bizia
jasainazi dion Marichanen amodioa bihotzean
begiratzea, orai, puak, beharbada hiltzeko bezpe-
ran, maitearen adiorak eta despegiada ukhaiteko?

Anttonen othoizten du Jaun zerukoa
bihotze altcha dezan zerbeit gisaz, lotseriak
hartua baita egun hontan.

Ilhuna heldu da, Alemanen zalapan-
tak ezitzen hasi direla.

Anttonen errechimenduak badu egun
hontan frango galtze eta ordainak gaur jin
beharak dira.

Hamar orenak irian, han hementa,
herrestan, itchura batzu: ordainak!!

Anttonen saketserat heltzean, batak
kaskatzen du hari bat belhaunaz.

" Deben bisais!! "

- To! Eskualdun beat!!
- To! Hi ere Eskualdune!!
- Bai bai! Zer chantza! Nungotarra hiz?
- Airemenditane eta hi?
- To!! Gaizoa!! Adio, gaizo Battitta! Zer diok?
- Gaizo Anton!! hi baiziz ??? >>

Aleman tero batek argitu ditu bi soldaduen begitarteak: Battitta Haitzalde eta Anton adin berekoak dira eta badute zombait irri, pilota eta mus partide elgarerakin eginak. Pentse horien zoriaz elgar ikhatearekin. Eta batek hau eta bert. zeak hura ari dira elhe eta elhe beren berien kondatzen. Eta nota zauria deskantchatzen baita usia botatzarekin, Anttonek ameki ameki goiz'aldetat idelkitzen dio bere mina.

Battittak erraiten diozka atal bezain elhe onak eta harek ere bere pegetuak emaiten. Harek maite duen emazte gaia ez da Marichan iduria, baina emazte zentzu haundikora, lur lanak eta kabalak gogoki maite dituen, Kattalin Bordehurikoa.

Battittak ez du beldurrik Kattalin horiko aireak pogoindatuko duela eta gogoz emaiten ditu

haren ganik ukhanak dituen azken berriak: dio "mahatsak ontza eman duela aukthen, arthoek itchura ederra dutela, gazterak ez direla hain betheak, urdeak ezkurrez igorriak dituztela, negu bortitzaren abiadura dela, beharrik baga arkitz egun dela kabalantzat, pentsatzen duela bethi bezi eta ontza naizela, egun guziez Jainkoa otchoitzen duela osorik itgut nezan eta makhurik balinkadut dohatsu altcha nezan zerruan..... eta bertze holako, cheheki, batere urguburik gabe, laboraria on baten solasak!!

Anttonek nigara begistan du Battittaren erraneri. Baina esperantcha daduka Jainkoak igorriko diola hori ere Marichanen ordaina.

Hemeretzi ehun'ta berrogoiganeneko Maiztaren hamarra.

Erechimen dua khechu da goiz'aldetat. Aintzindariak badabiltza, han eta hemen, mezukta, ez baitute iduri horiek ere gostuan direla.

Zer othe da berria?

Gauaz etsaien artean ibili diren "patrouillek" ekharri dute berria Alemanak biltzen

eta muntatzen ari direla kolpe zerbitzen egiteko.
Antton eta haren lagunek begusztatzen
dituzte eta aphaundurik segurtatzen beren tresnak eta
Kondatzen tiroak. Jin bedi jin etsai tzana, zer
pimpinak behar dituen sudurean!!

Oro, begiak erne eta tiroa prest daude,
hera bihotzean. Lotinanta jari da aintzin aintzinean,
lehenik jauzi egiteko.

Eta betebetan, pasu zokho baterarik,

Alemanak jauzi egiten du andanaka. Oihuka, orroaz,
izialdura aiseago parazteko, lasterka heldu dira. Gure
soldadok, epkaileak behar ondoak bezala, buru-
antzikitzen dituzte jin arau. Baina Hitlerrek errana
du pobera jende duela bere eresumen eta ez du
iduri ahel bezembat garbieragi nahi duela bazik.
Hil ahala eta gehiago, chutitzen dira ondainak
eta, akenean, bi edo hirur oren guduren buruko,
Frantsesak ez dute gehiago ikardokitzen ahel eta
gibelerat egiteko manua ukhasten dute.

Antton, bere hama salbu, denak
goldurik eskapatzen da erko bat bezala. Gure solda-
dok ihesari ematen ikhustearekin, Alemanak azkart-
zen dira eta igortzen gibelerik auzia bezain usu

den tiro uhar ikaragarri bat. Oraino erresalbu
zombait duten Frantsesak itzultzen dira artetan eta
etsai bat botatzen, bainan chimiko tipia honi holako
ospe baten artean.

Gerla huntan, gure soldadua anitzetan
Alemana baino lasterkanago izan^{da}, baliatu baitzuen.
Anttonen [errechimendua herichka baten ondoan
gelditzen] da ilhun nabarean. Oro, lehertuak, etzanak,
gose arrailduak, hasten dira hatzemaiten ahel dituzten
guzien jaten.

Arntzindarrik, lots-atuak eta batzu izituak,
ari dira zombait den bihi gelditu kondatzen. Antton
ohartu da Battitta ez dela ageri eta galdetako hasten
baita hea norbetek deus badakien, lagun batek
erraiten dio erortzen ikhusi duela eta ez dela gehiago
chutitu ez higitu.

Othoitzy labur bat eginik haren arima-
rendako, orhoitzen da Battittaren ethekoaz, Kattalin,
haren emazte gainz eta hoimbertzte aldiz aiphatu
diotzen maite zituen guziaz.

« Gerlaren tucktea!! Holako mutukoa! bere
Kattalin maitearekin, segur holako familia ederre egiten
zuena, zer funtsean joatea eta zerkeho!!? »

Gaueko Kattalin Bordachurikoa !! Othozten zinen begira zegan zure Battitta, bainan Jaintokak ikhusi du zure borhotza, ankitz jasateko ataldun Kau. Otu eta igori dautzu nahigabe izigarria!

Battittak ohiri du bere odola, zuk ichuriko dituzu zure niganak. Haren odole eta zure niganak onhar dituzala Jaintokak Frantsiako luraren gainetik aldare gainetik ahozek eskaintzen dituen ur eta arnoa onhartzen dituen bezala.

Ez dut dudarik Battittak gogotik eman duela bere odola eta zuk berdin egiten duzula zure nigarez eta nahigabez. "

Hitz horiek Anttonen Kattalini gaitzatu dituen Jenoetan dira. Battitterekin hitzemanen zuten elgari, bati malkhurtu gertatzen bazen, bertzeak ethekoeri jakinaraziko zuela, luzag arangan egonarazi gabe.

Orok dakiten bezala, Maiatzaren hamaretik goiti, gure soldadok alderat chesari eman ziren. Beren aurohokien Alemanek histen zuten iguzkia, heien kanoak ezin kondatuak ziren eta beruene tartik, heien soldadok ulticha bezain usu eta gogotik aldatzen. Gure errepublica, merkata egiten gizontzai-

learekin, gure erresuma errekarat joana zen. Sosa eta lohikeria nagusi jarriak, ez zen tzanar baizik mintzo eta tzana baizik ari. Gure zergez eta laneg hazi ditugun buruzagiek akhola guti zuten gure ongiaz, eta gure beharrez, Gure deputatuetarik haste, alfer eta higuin frango hazi du Frantsiak. Merke bide zautsten gure odola, zeren gure ethearen ondoan zen puu utzi dute haunditzerat hastetik hil gabe eta aski haunditu delarik hasi dira dena espanu eta balentria hil nehiz, bainan berantegi zen, Frantzia ez zen gehiago putik eskapatzen ahal.

Luzag, pobere luzag, engenatu gaitzute, errenez ez ginnela beldurik, gure etheak bazituzte putik begiratzeko behar zituena. Gerlan haserazi gaitzute zakitelarik gure muntadura eta tresnek ez zutela aiphat. Zee ere belio Alemanek zituenera aldean. Eta guri buru muntatzen ari zirelarik, erraiten zutela fentse akhala gezur, izan ditake gure buruzagi jin gaickto eginek iri egiten zuten gure pinherbeaz trufatuz.

Horiek hola, Alemanak erreckhi bitela zuten gure erresuma guzia. Ikharre batekin jakin ginuen Parise harturik, Bordeleni buruz ari zirela eta Bordelen gairdi zombait egun goiti behit Baiduan

zirela eta Eskual. Herrian. Gure soldado-ak bere
gusa utziak ziren, aintzindari gehienak eskapatuak.

Anton, bostz ehun kilometra oinez egirik

Airemendiarat heldu zen Alemanak jin baino lehen.

Etchehoek ez zuten pinhesten ahal ere inolako ertrautsi:
tik oso ahera zela eta lehenetsirik baitzen gibelera
heldu zene, bazuen ikusle eta berri gabdegile.

Jakin zuen Hartzaldeko Battitaren berria hedatua
zela herrian eta berretala joan zen familia doketa
beren kontsolatzerat.

Anton jin eta bi egunen buruan hedatu
zen berria Aleman andana bat heldu zela Airemen-
din egoteko. Egun berean berean, Kattalin Bordachuri
joan zen Antonen ganet oraino zerbit chehetasun jakin
nahiz Battitaren gainean.

« Gaicho Battitta!! bi anaia bezala gonon.

Ez ginuen batek bertzeerendako pegeraturik eta
segur ardura aipatu zaitugu, zu ere. Segur ezan zaite
zeru gorenean dela, hure zenerekin! »

Antoni betbetan halsa gelditzen
zaio, ahora zabalik gelditzen! Zer ikhusten du?
Bi Aleman heldu direla ethe aintzinean. Haren
cheha segura, soldado zela jakirik,

ez bat, ez briga, lasterka eskapatzen da gibelera
atetik. Kattalin ere gordetzen da eta Ennamun zaku-
na da agertzen, segur, ez baitu begitarte ona egiten.

Soldadoetarik bat Kargatua da jasain ahal, bestea
aintzindarichta bat, ari da ahal duen bezala adiaragten
gau egun batentzat soldadoa atchikiko dutenez. Eta
Erremunet baitetz, baidaki alimela horien errefu-
patzean ez dela gauza onik.

Zombait erausia etgari egirik,
aintzindaria joan da eta soldadoa barnerat sartu.

Akitua, uhentua, ezkaratzeko tratto baten gainean
jartzen da. Ez du iduri gaichtoa dela. Kattalin, Anton
eta gaineratekoak ari dira ezkaratzerat, haren inguruet
briltzen, Alemanak bere karga botatzen du eta
iduri ikhusi guduez haritua dagon:


« Guerre niks bon, dis. Moi, franzois boune.
boune! Bourquai non alles kamarad? Kapitalist
guerre! touchou guerre! Bourquai boune boune! »

Eta horiek eraiten dituela, bere pakelatik
athera du paper andana bat odoloz betheak eta
potrete bat eraiten du ikhusterat. Kattalinek hartzen
dio zer den eta ikhusi orduko garasia batekin
erortzen da. Eta oro haritzen dira, Alemanak ez

beatu deusea konprenitzen zer gertatzen den.

Antonok hartzen du potxeta eta nigara heldu zaio. Katalin ereman dute ohe baten gainean. eta hura Joan orduko Antonok erakusten du etxekoer Battitaren potxeta, segura baita aleman huren hila duela eta oro tuhtatu dira.

Battitta eta Alemana Etchebategerean izanez orai, ez zuten elgari begi garbituik egiten, ez baitzuten bat bertzearentzat arranguririk, gertak agin ditu bat bertzearen etsai, bat bertzearen hiltzale.



Marichan hirian.

Anton ari dela Alemanak eskaintzen dituen paperen ikertzen, gero-berago ikhusiko baitugu zer ziren, Marichanek irria aise egiten du Baionako hirian. Andree Maysonnave ez da gehiago ageri ere laboreri alaba dela. Etchekoak ere utziak ditu atanz-tera.

Egun batez ama izan zaio ikhusten, andree Maysonnave ez baitzen kontent. Gararat izan zuen biderat. Mariona ez zen alaba bezain urgulatsua eta andree beharra. Bere ile churiak garbiki plegatuak motto eder bati buruz, bere parasola besoplean eta zare bat eskuan emeki Joan Karrikaz Karrika alde guzietarat behatuz hea etxean eskas zuen zerbat ikhusiko zuen saltzeko. Eta andree Maysonnave haren ondoan zabilan, nardetua, hotako moda kontrako emazte baten lagun. Eta eskuaraz mintzatu behar, amak ez baitu "frantchimentian" ha aditzen eta aski belduu baitzen andreea ezagun norbeit hartzeman hotako ama arunt baten alaba zela jakinen zuena. Eta khechu khechua zion amari

estakurutzat

« Fite goazen, ama, "femme de chambre" jarri zergoz "boulot" ankitz badut.

— Zer tipula aderrak! zer balio othe dute? »
ama beki bere egitehoak gogoan zagoa

